

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Ekainaren 11ko 34/2002 FORU DEKRETUA, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzekoa.

SARRERA

Lehen artikulua. Eskumena.

Bigarren artikulua. Aldundiaren esku hartzea eskatzen duten jarduerak.

Hirugarren artikulua. Jakinarazpenak.

Laugarren artikulua. Enpresa baimenduen errolda.

Bosgarren artikulua. Tramitazioa.

Seigarren artikulua. Erroldako izen ematearen indarraldia.

Zazpigarren artikulua. Kontrol Batzordea.

Zortzigarren artikulua. Makineriaren ezaugarriak eta lanak egitean kontuan hartu beharreko neurriak.

Bederatzigarren artikulua. Zigor araudia.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen iragankorra

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena

Amaierako bigarren xedapena

BOG 1 Uztaila 2002

Gipuzkoako mendietan baso landaketak, baso hazkuntza eta zainketak eta baso ustiaketak egiteko aski eskulanik ez baitago, gero eta gehiago makineria ari dira erabiltzen bai birlandaketetan lurra prestatzeko, bai baso bakanketetako egurra tratatzeko eta baita basoak soildu eta mendian bertan egurra mugitzeko ere. Horrek guztiak galerak dakartzkio lurraren egonkortasun eta emankortasunari eta euri uren erregimena bera ere aldatzen ari da.

Gipuzkoako Mendien 1994ko uztailaren 8ko 6/1994 Foru Arauak mendien ustiapen eta erabilerari buruko printzipio orokorrak zehazten ditu 47. artikuluan. Hala, jarduera horietarako guztietarako Baso Administrazioaren esku hartzea behar da, Foru Arauko 74. artikulua araberaren bera baita lurren babes gaitan eta hidrologia nahiz basoak berreskuratzekoetan eskumena duena, eta Baso Administrazioa, hain zuzen ere, jakitun da baso baliabideen kudeaketak elkarri modu eramangarrian egokitu beharreko bi osagai dauzkala, ekoizpenarena bata eta kontserbazioarena bestea, eta irizpiderik gabeko mekanizazioa ez dela aukera egokia Gipuzkoako mendietako lanetan nabari den eskulanaren urritasun hori konpontzeko.

Horregatik, bada, aipatutako foru arauko 89.1 artikuluan jasota dagoen helburuarekin bat eginez Gipuzkoako Baso Administrazioa behartuta dago parte hartzera eta, hartaz, lurraren galera eta ur baliabideen erregimenaren aldaketa ekar ditzaketen mendiko jarduera mekanizatuak gertutik kontrolatzera.

Horregatik, Gipuzkoako Mendien 1994ko uztailaren 8ko 6/1994 Foru Arauak Hirugarren Xedapen Gehigarrian eta

74. artikuluan eta Autonomia Elkarte Osorako Erakunde eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.artikuluko a) 8 atalean xedatutakoarekin bat etorritik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat eginez, Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta gaurko eguneko bileran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren,

XEDATU DUT

Lehen artikulua. Eskumena.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren zeregina da basoei buruzko araudia zuzen bete dadin zaintzea eta, hartaz, lurren babesari, landare eta animalien dibertsitateari eta ur baliabideen kontserbazioari buruz aipatu foru dekretuan esaten dena Mendietako eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen bidez betearaztea.

Bigarren artikulua. Aldundiaren esku hartzea eskatzen duten jarduerak.

Basoak landatu eta birlandatzeko lurra makinaren bidez prestatu behar denean, aldezturik jakinarazi behar zaio Mendietako eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eta lanak enpresa baimenduek eta foru dekretu honen bidez sortuko den erroldan izena emandakoek egingo dituzte

Bigarren artikulua, 2003ko apirilaren 29ko 19/2003 Foru Dekretuak [GIPUZKOA] idatzia, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua aldatzekoa («G.A.O.» maiatzak 12). Indarreangotasuna: 2003/05/13

Hirugarren artikulua. Jakinarazpenak.

Baso landaketarako edo birlandaketarako lurra prestatzearren beren mendietan autopropulsioko makineria erabili nahi duten basoetako titularrek horren berri eman behar diote Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuari, lanekin hasi baino hilabete lehenago gutxienez. Jakinarazpen horiek helburu hori duten inprimakiak erabiliz egingo dira

Hirugarren artikulua, 2003ko apirilaren 29ko 19/2003 Foru Dekretuak [GIPUZKOA] idatzia, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua aldatzekoa («G.A.O.» maiatzak 12)Indarreangotasuna: 2003/05/13

Laugarren artikulua. Enpresa baimenduen errolda.

4.1. Bigarren artikuluan adierazitakoa betetzeko, baso landaketak egin behar direnean lurra autopropulsioko makinaren bidez prestatzen dituzten enpresa baimenduen errolda sortu da. Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko Mendietako eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari esleituta, Basozaintza eta Izadizaintza Zerbitzuak kudeatuko du.

4.2. Errolda horretan, baso landaketarako lurra prestatzeko autopropulsioko makinak erabiliz baso lanak egin nahi dituzten enpresek emango dute izena.

4.3. Erroldan izena emateko, Enpresen Erroldan gordeko diren ondorengo datuak eman behar ditu enpresak:

a) Enpresaren datuak:

- Izena.

- Titularra.
- Helbidea, IFK edo NA.
- Langile kopurura.

b) Enpresaren esperientzia: Makinak erabiliz enpresak azken hiru urteetan egindako lanetako batzuen azalpen laburra, horrelako lanik egin badu. Lana eskatu duen baso jabearen izena eta mendia non dagoen ere adierazi behar dira.

c) Enpresak dauzkan makinak eta makinaren ezaugarriak eta lan egiteko era: Eredua, fabrikazio urtea, pisua, lurrari eragiten dio presioa

4.4. Enpresek izena emanda egon behar dute Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (1. Atala, 912 epigrafea, Baso Zerbitzuak), herrialdeko kuota dutela Gipuzkoako enpresen kasuan eta estatukoa dutela gure lurraldeaz kanpoko enpresen kasuan.

Bosgarren artikulua. Tramitazioa.

Enpresa baimenduen erroldan izena emateko eskaerak Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendari nagusiari zuzenduko zaizkio eta Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko dokumentu sarreren Erregistro Ofizialean aurkeztuko dira, edota, Herri Administrazioen Zuzenbide Arauei eta Administrazio Jardunbide Arruntari buruzko Legean aurreikusitako beste edozein bidetik. Eskaera Departamentuko Erregistroan sartu ondoren, Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendari nagusiak, bidezko irizitako egiaztapen eta informeak egin eta hilabeteko epean baimena eman eta enpresa erroldan sartzeari aginduko du edo, arrazoiak emanez, baimena ukatuko du

5. artikulua lehena atala, 2003ko apirilaren 29ko 19/2003 Foru Dekretuak [GIPUZKOA] idatzia, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua aldatzekoa («G.A.O.» maiatzak 12). Indarreangotasuna: 2003/05/13

Ebazpena hartzeko aurreko paragrafoan jarritako epea berriazko ebazpenik hartu gabe bukatzen bada, eskaera onartutzat joko da.

Mendietako eta Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko foru diputatuaren aurrean.

Seigarren artikulua. Erroldako izen ematearen indarraldia.

Lurra makinaren bidez prestatzeko baimenduak izan diren enpresen erroldatze indarraldia bost urtekoa izango da, nahiz eta epe berdineko alditan luza daitekeen interesatuaren eskaeraren ondotik.

Zazpigarren artikulua. Kontrol Batzordea.

Lurra makinaren bidez prestatzeko baimenduak izan diren enpresen erroldak Kontrol Batzordea izango du, honela osatuta: Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko ordezkariak, erroldan izena emandako enpresen ordezkariak eta Gipuzkoako Baso Jabeen Elkarteak. Batzordearen zereginak errolda gaitan eta sor litezkeen arazoetan aholkuak eman eta laguntzea izango da, ebazpen ahalmena Mendietako eta Ingurumeneko zuzendari nagusiarena izango delarik.

Zortzigarren artikulua. Makineriaren ezaugarriak eta lanak egitean kontuan hartu beharreko neurriak.

Lurra ez dadin gehiegi galkatu, landare hondakinak kendu edo mozketak egiteko erabiliko den makineria arina izango da eta hondakinak ur bideen babes landaretzari eta komunikazio bideei kalte egin gabe eraman eta utziko dira eta, horregatik, baldintza atmosferikoak egokiak diren garaietan egingo dira lanak.

Bederatzigarren artikulua. Zigor araudia.

Foru dekretu honetako betebeharrak eta baldintzak urratuz gero, Gipuzkoako Mendien 1994ko uztailaren 8ko 6/1994 Foru Arauko VI. Izenburuan ezarritakoa betearaziko da.

Xedapen iragankorra

Bigarren artikuluan jarritako baldintza, hau da, makinen bidezko lurraren prestaketa lanak enpresa baimenduek eta foru dekretu honen bidez sortutako erroldan izena emandakoek egin behar dituztela, Foru Dekretuan indarrean sartzen denetik bi hilabeteko epea iragan ondoren bete beharko da.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena

Nekazaritza eta Ingurumeneko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau betearazteko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako bigarren xedapena

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.